

Aita Imanol Berriatua gogoratu

Jaun-andreok, egun on guztioi:

Ez da oraingoa batzen garen lehen aldia Elantxobeko seme izan zen Imanol Berriatua frantziskotarrak berba egiteko. Aurreko batean ere, 2006ko maiatzaren 26an, arratsaldean San Nikolaseko elizan elkartu ginen asmo berberarekin, eta orduan Imanolen bizitzaren gainean, nire ustez esan beharreko gauza nabarmenenak azaldu nizkizuen.

Beraz, alferreko lana litzateke gaur orduko kontu berberak errepikatzen hasia. Horregatik Imanolen bestelako aurpegia erakutsi gura nizueke gaur, batzuetan ahaztua. Askotan esan da euskara, neurri handiz, elizgizonen lanari esker kontserbatu dela eta haiei zor dizkiegula geure hizkuntzan dauzkagun liburu ez gutxi. Eta hori, neurri batez, egia delako, holaxe aitortu behar dugu. Baina hala eta guztiz ere, erdizka esaten diren egiak aldamenen beste erdia ere izaten dute, beti hain egia ez dena, edo nahiago baduzue, gezur huts.

Apaizak eta fraideak euskararen alde ibili direla esatean, horrek ez du esan gura, ordea, apaiz eta fraide guztiak euskararen aldekoak izan direnik. Nik neuk, adibidez, ondo gogoan daukat Bilbon, Iralako komentura Imanolengana joaten nintzenean, beragaz euskararen gaineko kontuak tratatzeraz, esaterako Anaitasuna aldizkariak edo Euskaltzaindiaz, askotan nolako irribarreak egiten zizkidan bertako fraide atezainak, "Imanol, beti lez, bere gelan dago, euskarazko paper eta tontakeriekin sartuta" esanez. Tamalez, komentu hartako fraide gehienak, atezain haren iritzikoak ziren.

Jatorriz baserriko edo portuetako guraso euskaldunen semeak izan arren, umetan ikasitako berbata alde batera itxita zeukaten, arduragabekeria osoaz. Imanol, aldiz, berea, bertan Elantxoben ikasitakoa, maite zuelako, lantzen eta dotoretzen

ahalegintzen zelako, “arraroa” zen. Gaur Imanolen ondoko fraide haiek ahaztuta dauzkagu, baina Imanol ez, Imanol honezkero euskal hizkuntzaren historiara pasatu da, eta hor geldituko zaigu betiko, denbora hartako Euskal Herriko zero iluneko izar distiratsu, euskararen alde egin zituen lan eder eta liburu ugarien ondoan.

Imanolek Elantxobeko iturritik edan zuen bere hizkera, euskara ederra, freskoa eta kresal usainekoa, eta bere bizitza osoan horrexeri eutsi zion zintzo-zintzo. Bai, gainera, bazekizkien espainola, frantsesa, latina, greziera, ingelesa, alemana, italiera eta hebreera, Israeleko hizkuntza ere. Baina horien guztien gaineratik bertokoa, euskara maite zuen batez ere.

Gaur, elantxobetarrok, Imanolen memoria gogoratzeko batu zarete, batu gara, berak egindako lan ederra txalotzeko, Imanol bera aintzat harturik, eta ondo merezita dauzkan fama eta ohorea aitortzeko. Baina, jaun-andreok, hori egitean, Imanolek lorturiko ohore eta fama hori zuen gainera ere ekarri dituzue, bera bezalako herriko pertsona baliotsuak estimatzen dakizuelako, haren bideari bihotzez segitzen diozuelako. Alde horretatik, lagunok, adiskideok, esan gura dizuet Imanol ez dela guztiz hil, gudan, zuengan, zuetariko bakoitzarengan, bere herriaren bihotzean, bizirik segitzen duelako.

Beraz, gora Imanol Berriatua esatean, aldi berean, gora Elantxobe diot, bai eta gora zuek ere, elantxobetarrok.

Eskerrik asko guztioi.

Elantxoben, 2014ko uztailaren 19an
Xabier Kintana

